

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Zubiarte Euskaltegi Publikoak 2018-2019ko helduentzako euskara-ikastaroetan izena emateko epea zabalik du irailaren 5 arte

*Nafarroako Hezkuntza Departamentuko Zubiarte Euskaltegi Publikoak 2018-2019 ikasturterako maila ezberdinetako hainbat ikastaro antolatu ditu*

Osteguna, 2018.eko abuztuak 30

Matrikula epea zabalik da 16 urtetik gorako herritar ororentzat. Gainera, Unibertsitatekoak ez diren beste irakasle denek ikastaro hauek egin ahalko dituzte dohainik, euren eskola ordutegitik kanpo baina beren formazioaren baitan.

Zubiarte Euskaltegiak maila guztietako ikastaroak eskaintzen ditu: A1, A2, B1, B2, C1 eta EGA, ordutegi hauetan: 09:15-11:45, eguerdian, 17:00-19:30 eta 19:30-21:30 eta hurrengo modalitate hauetan:

-4-5 ordu astean: maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1 eta EGA. Aukeran astelehen eta asteazkenean edo astearte eta ostegunean.

-4 ordu astean: Mintzamina B2 Zubiarten. Eta Kanpoko ikastaroak (Antsoain eta Orkoien), 17:00-19:00

-6 orduko ikastaroak: Autoikaskuntza, bi orduko mintzamina Zubiarten eta 4 orduko lan-konpromisoarekin on-line. Maila guztiak A1, A2, B1, B2, C1 eta EGA

-6 orduko ikastaroak. Ikastetxeetan, eguerdian. Bai ikastetxeetako gurasoentzat, bai jende guztiarentzat.

-10 orduko ikastaroak: Maila B2, astelehenetik ostegunera, goizez.

Izen-ematea [Zubiarte Euskaltegi Publikoaren web orrian](#), edo Uharteko Zubiarte kalea 13an. Informazio gehiago 848 43 10 10 telefonoan edo [eusubia@educacion.navarra.es](mailto:eusubia@educacion.navarra.es) posta elektronikoan.